

Pol Galofre

GIZON HAURDUNA



ERREFERENTEAK ALDARRI

“Haurtzaroan eta nerabezaroan emakume mari-mutil gisa irakurria nintzela hezi nintzen. Unibertsitatera iritsi nintzanean ezagutu nituen mutil transexualak, ordura arte ez nuen erreferenterik izan. Zorionez, hagitz politizatuta zeuden espazio aktibitatean mugitu nintzen eta hori ezinbertzekoa izan zitzaidan nire buruaren gaineko gogoeta egin ahal izateko. Horregatik uste dut funtsezkoa dela haurdun gauden mutil transexualen errealitatea ikusaraztea: badirudi pertsona batek mundua gizon gisa bizitzea erabakitzen duenean ukatu egin behar behar duela gizarteak feminitateari jotzen duen gorputz hori. Baina ez, hori ez da horrela, eta frogatzen da maskulinitatearen espazioa habitatzeko dugunok ere haurdun gelditzen garela”.

“Ezinbertzekoa da haurdun dauden pertsona transexualen erreferenteak egotea”

Haurdun egoteko emakumea izatea ezinbertzekoa ez dela aldarrikatzen du pertsona transexualen eskubideen aldeko aktibista den Pol Galofrek (Badalona, 1987). Sistema patriarkalak inposatutako etiketatik urrun, eta bere esperientzia azalduz, haurdun dauden gizon transexualen lehen belaunaldiko erreferente bilakatu da.

SAIOA BALEZTENA JORDI BORRÀS

Zure Twitter kontuan diozu ez dakizula zer den gizona izan edo sentitzea. Zer erran nahi duzu?

Ba hori, ez dakidala. Emakumea izan edo sentitzea zer den ez dakidan bezala. Sarritan galdetu izan diot inguruko jendeari zergatik sentitzen diren gizon edo emakume, eta orain arte, ez dut erantzuten jakin duen inor aurkitu. Emakume anitzek erantzuten didate gorputzari edo haurdun gelditzeko gaitasunari lotutako ezaugarriengatik sentitzen direla emakume... Tira, emakume edo gizon izan edo sentitzea ziurtasun intimoa da, bertzerik gabe.

Maskulinitatea dagokizun ere zalantzan jartzen duzu. Zergatik?

Gizartean nagusi den maskulinitatearen kontzeptuagatik. Betidanik izan naiz pertsona maskulinoa: ttikia nintzanean, nerabezaroan eta orain. Tira, orain agian feminizatu ditut hainbat ikuspegi. Baina gizarteak maskulinitatearen kategoria aitortzen dien gorputzetan, maskulinitatea arazoa da niretzat, pribilegio espazio bat okupatu eta babesten duelako. Eta ez, ez dut maskulinitate berrien kon-

tzeptuan sinisten, horrek ez duelako errotik arazoa konpontzen.

Zein da bidea, zure ustez?

Irakurketa desberdinak egin ditut bizitzan. Orain, maskulinitatea aldatzea baino interesgarriagoa iruditzen zait pribilegio gune gisa desokupatzearen ideia. Feminismoak bere garaian feminitatearen inposizioa zalantzan jarri zuenean inork ez zuen aipatu “feminitate berririk” edo “deseraikitako feminitaterik”. Feminitatearen ohiko deskribapena desmuntatu dugu eta emakumeek, bertzerik gabe, espazio berriak hartu dituzte. Horregatik niri zalantza sortzen dit ikusteak, maskulinitatea birpentsatzen ari den gizonen mugimendua nola lotzen den maskulinitatearen kontzeptuari. Batez ere, lantzen ari diren gauzak oso oinarritzekoak iruditzen zaizkidalako, haratago joan beharko ginateke: jendea ez jotzea, gure sentimenduez solasteko gai izatea edo etxe eta zaintzaren ardurak izatea, gizartean pertsona funtzionala izateko oinarritzeko osagaiak iruditzen zaizkit. Eta horiek bere egiten ez dituenak, ara-



"Herrialde anitzetako legegintzetan trantsizioa egiteko derrigorrez antzutzera behartzen dituzte pertsona transexualak, Suedian edo Ingalaterran adibidez".

zo bat du, eta arazo hori, agian, maskulinitatea da. Beraz, desokupatu dezagun eta bilatu ditzagun espazio berriak.

Bide honetan zein izan dira zuretzat erreferenteak?

Nik anitz maite dut Jokin Azpiazu soziologo euskalduna, akademikoki hagitz interesgarria iruditzen zait. Horretaz aparte, nire erreferenteak izan dira emakume maskulinoak eta pertsona maskulino bateri dagozkion inposizioak betetzen ez dituzten bertze hainbat gizon transexual. Alegia, gehiago ikusaraziak izan beharko lirakekeen eta merezi duten espazioa izan beharko luketen erreferenteak.

Erreferente bilakatu zara: haurdun zaude eta haurdunaldiaren aldarrikapen politikoa egiten duzu.

Nire esperientzia azaldu nahi izan dut erreferente gutti dugulako zentzu honetan eta uste dudalako jende anitzek har dezakeen bizitzako bidea dela nik aukeratutakoa. Adibidez, emakume zisgeneroen ugalkortasuna anitz zaintzen da: hogeita hamar urteko emakume batek erabakitzen badu ez duela haurdun

gelditu nahi eta tronpen lotura egin nahi duela, litekeena da halakorik egiten ez uztea, etorkizunean iritziz aldatuko balu bere ugalkortasuna ez eragozteko. Aldiz, trantsizio mediko prozesua egiten duten pertsona transexualen kasuan, ugalkortasunari ez zaio garrantzia bera ematen: bigarren mailakoa da. Aspalditik datorren desoreka pairatzen dugu eta herrialde anitzetako legegintzetan trantsizioa egiteko derrigorrez antzutzera behartzen dituzte pertsona transexualak, Suedian edo Ingalaterran adibidez.

Eta Espainiako Estatuan?

Ez dago lege espezifikorik, baina antzuetza oso probalea da, kontutan hartuta dokumentu ofizialetan sexu aldaketa egin ahal izateko mediku protokoloek bere baitan jasotzen dutela esterilizazioa: sexu aldaketa egiaztatzeko ezinbertzekoa da zure gorputzean bi urtez aldaketa hormonalak egin dituzula justifikatzea. Hormonazio prozesua testosteronaren bitartez egiten baduzu, eta aurrerago bertan behera uzten baduzu, litekeena da haurdun gelditzea; baina progesterona eta estrogenoak erabiltzen

dituzten pertsonen arrisku handia dute antzu gelditzeko.

Trantsizioa egiteko protokoloak zenbateraino dira pertsona transexualen ugalkortasunaren kontrakoak?

Espainiako Estatuan eta hemendik kanpo, pertsona trans anitzen bidea hurrengoa da: lehenik psikologo edo psikiatra batek diagnostikoa egiten dizu, transexualitatea patologizatuz; ondoren endokrino batek hormonazio prozesua abiatzen du; eta horrek eragindako aldaketak ongi jasotzen dituzunean, mahai gainean jartzen dizuten lehen aukeretako bat histerektomia da, uteroaren eta obuluen hustuketa. Horrek bi ondorio ditu: batetik, trantsizioaren prozesua azkartzea, "nahi ez dituzun hormonak" kentzen dizkizutelako zuzenean; eta bertetik, hormona sintetikoek menpeko bilakatzea bizi osorako. Eta noski, antzututa. Problematikoa iruditzen zait hori izatea bide bakarra, eta horregatik ezinbertzekoa da ohiko protokoloetatik ihes egin eta trantsizio bide berriak aukeratzen ditugun pertsona transexual haurdunen erreferenteak egotea. ●